

Don Bosco Shell Eco-marathon frogan



Zigor Beloki

Aurten Don Bosco ikastetxeak 50garren urtea betetzen du, horregatik Shell Eco-marathon frogan parte hartzea erabaki du bere automozio ataleko ikasle eta irakasleen maila erakusteko. Froga hau mundu mailakoa da eta edizio honetan 220 partaide eduki ditu.

Frogaren funtsa zera da:

Guk diseinatu eta egindako ibilgailu batekin eta erregai litro bat erabiliz ahalik eta kilometro gehien egitea. Horretarako erregai mota ezberdinak erabil daitezke, hala nola, gasolioa, gasolina, etanola, hidrogenoa eta abar.

Gure kasuan etanola erabili genuen, horretarako 35cc-ko gasolinazko motor txiki bat hartu eta aldaketa batzuk eginaz etanolakin ibiltzeko moduan jarritz. Etanola farmazietan saltzen den alkoholaren antzeko erregaia da, (*guk frogak egiteko alkohol hori erabiltzen genuen*). Motorraz gain ibilgailua egin beharra dago, gure kasuan karbonozko txasisa, aluminiozko piezak eta 3 gurpil erabiliz. Guztira 56 kg-ko pisua zuen.

Ibilgailuaren prestakuntza urte osoan zehar egin dugu Don Boscon, irakasle eta ikasleen artean, batez ere arratsalde eta ordu libreak erabiliz.

Froga maiatzaren azken astean izan da Alemaniako Lausitzring zirkuituan, eta bertara 8 pertsona bertaratu gara ikasle eta irakasle artean.

Aurtengo edizioan talde indartsu asko egon da, batez ere frantsesak. Horiek unibertsitateko azken urteko ikasleak dira eta urte asko darमतzate froga honetan parte hartuz. Gainera oso laguntza garrantzitsuak jasotzen dituzte gobernu eta auto fabrikanteengandik.

(*Gure kasuan laguntzak Tknika, Seur eta Erretereriako Udaletxetik lortu ditugu, batez ere logistika eta garraioa antolatzeako orduan, eta Tknikatik beraien teknologia erabiliz*).

Talde irabazlea Jouliveri Unibertsitatea izan da eta horien marka gasolinazko motorrarekin 3800 km litro batez egitea izan da. Guk aldiz, etanola erabiliz litroko 377 km egitea lortu dugu, gure kategorian 10. postua eta sailkapen orokorrean 53. postua lortuta.

Gure markak nahiko kaxkarra dirudien arren, etanola erabiltzen dugun lehenengo urtea da eta 5 egunetako froga hau arazo larririk eduki gabe pasatzea lortu dugu. Normalean froga honetan 5 aukera edukitzen dira marka ezartzeko, eta guk 4 txandatan bukatzea lortu dugu. Horri esker, estatu mailan egiten den frogan parte hartzera gonbidatuak izan gara, eta baita hurrengo urtean Holandan egingo den mundu mailako frogara bertaratzera ere.

Mota honetako froga hauek hemen ezagunak ez izan arren, Europa mailan ospetsuak dira eta horri esker, batez ere telebista eta prentsaren laguntzaz Erretereria eta Don Bosco herrialde askotan zehar ezagunak egin dira. Guri gustatuko litzaigukeena zera da, datozen urteetan zehar gero eta ospetsuagoak izatea.



